

Emakumearen ardurape gozoan, maitezko ta errukizko egipenak azkenik ez dauan mailladi lez luzatzen dira. Erruki-aizta lez, geixo-zain, osagilleen leguntzaille, ume-txoen etxe ta eskoletako zuzendari amakor, eta beste eun eratan, emakumeak ba-daki neke-oiñaze-samintasunaz bidean alkar jotzen, ta here arima errukitsuan atotsi ta ankerkalde goxoa eskintzen. Gizonezkoak itzalak egin eta alkar arteko autuak eratuten aharduen bitartean, emakumea bizkor doia, bere laguntasuna eskiñiaz, onezkero ezereen itxaropenik ez legoken tokira.

Zer litzake gure aberria, gure erri ta urietako ainbat eta ainbat bearrizan ta gordintasun, emakumearen biotzak dakartsoan laguntza, esku leun ta pozik bage? Dana ondoen alkartu ta ames ta gora-nai guztiak batcan josten dabezana, emakumea dogu. Emakumeak zenbat gauza daroaz etxera, bere amantal barruan? Lau zaldi burditan senarrak eroan ta ekarri legikean baino be askoz geiago.

Mindszenty

GURIDI *i l d a*

Joan dan aprilaren 7'an Guridi *i l d a* jakun Madrid'n, 75 urte ebazala. Sor-tzez Gazteiz'tarra gendun, an bait-zan jaio 1886'ko irailaren 25'an. Baiña bere bizitza ia osoa Bilbao'n eta Madrid'en emon ebala esan bear.

Amazazpi urtegar joan zan Paris'era musika ikasten: ta gero Bruselas'era eta Kolonia'ra, Europa'ko musikalaririk onenakaz artu-emonean sarturik. Orrela, berez musikarako ekar-rreren zaletasun bizia ikasiz indartu eban. Laster jabetu zan, izan be, organuak, orkestak, fuga-kontuak, polifoni-arazoak muiñean dabeezan ezku-tu ta zailtasun guztiakaz. Eta ogeita bost urteko zala idatzi eban artzain-kanta eder "Mirentxu". 1910'gare-nean lenengoz Bilbao'n antzeztua ta, danok dakigunez, oraintsu be bai, or-dutiko berrogeita amargarren urtea ospatuteko.

Andik amar urtera beste opera bi-kain bat, "Amaya" eskiñi euskun, 1920'ko maiatzaren 22'an, Bilbao'n

sekulako txolo-zartuka entzun izan zana. Bai ta "El caserio" deritxona be, beste askoren artean. Erti-lan guz-tiok Bilbao'n idatzi ebazan: emen bizi izan zan, ba, ogei ta amar urtetik go-ra, bertalan musika gorabera guztiaren ardatz eta goga eragille.

Musika berri ospetsua, ziñez, erio-tzeak erriñ daukuna. Baiña, batez be, eusko musikalaria. Bere lan guz-tietan aritza primak dardar dagi. Or-emen handiegiz guk euskaldunok kan-ta ta doitzak ederrik asko, noiztikoak diran ez jakiguzanak, gure izaera be-rezia osoñ agertzen dauskuenak. Eta Guridi musikariak onetxek ebazan mai-te, eta kantak ta doinu errikoi oneik izan oi ziran, geienbat, bere eresi, or-kesta, opera, lirika kanta ta abarren guna ta gai beiñena.

Alde ontatik begiratu ezkerro be, oso txalogarri dogu aren musika lana.

Goian bego, aingeru kantarien ar-tean koroetua.